



Alderdiek abiarazi dute hauteskunde kanpaina

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Gaueko 00:00etan hasi zen atzo
eta hilaren 25era arte iraungo du

AGENDA ▶ Karteladak, hitzaldiak,
mahai inguruak eta abar izango
dira datozen egunetan ▶ 2-3

ALTZO ▶

Harrizko
eskultura
jarri diote
Erraldoiari

Ugartemendiak
egin du lana ▶ 6



IÑAKI SAGREDO ▶ HISTORIALARIA

«Gazteluek herrien
independentzia
irudikatzen zuten»

Leitzan izandako bi dorreen inguruko
hitzaldia emango du gaur gazteleraz ▶ 7

LEABURU ▶

Urrezko
Aizkora
Txapelketan
Arrospide at
geratu da ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

HITZA Pilota
Txapelketan
partida
gehiago
izango dira ▶ 5

IRURA ▶

Bihar Ikastolaren
Eguna, Kultur
Astearen baitan ▶ 4

LEABURUKO OSTATUA

- Eguneko Menua
(aste guztian, larunbat
eta igandea izan ezik)
- Karta aste guztian zehar
Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48



Hauteskunde kanpaina abian da

Atzo gaueko hamabietan eman zioten hasiera eta hilaren 25era arte luzatuko da; hilaren 27an erabakiko da guztia

ESTI EZEIZA-IÑIGO TERRADILLOS

Sartuak gara jada, bete-betean, hauteskunde kanpainan. Atzo gaueko hamabietan eman zitzaion hasiera eta bi aste iraungo ditu, hilaren 25era arte, hain zuzen ere.

Guztia prest zuten atzo gauean alderdi desberdinetako ki-deek kanpainari eman beharreko hasiera emateko, eta hori hurrengo egunean ederki nabaritu da, izan ere kartelez josita esnatu baitira eskualdeko herriak. Horretarako, aldez aurretik kartelak jartzeko guneak prestaturik zituzten. Mezu ugari eta desberdinez beteriko karteletan bezala, komunikabideetako protagonista ere izango dira udalerrietarako edota batzar nagusietarako hautagaiak, ondorengo egunetan. Irargarki hauetaz gain, ekitaldiz beteriko egitaraua izango dute alderdiek datozen hamabost

egunetan. Hala, orain arte, soilik, alderdietako zerrendak nortzuk osatzen dituzten aurkeztu badute ere, iritsi da beraien ildo nagusiak ezagutzeko unea, eta horrela jakingo dute herritarrek zer duen alderdi bakoitzak eskaintzeko herriaren alde, gutxienez hurrengo lau urteetarako.

Baina, hamabost egun hauean alkatetako emateko erabakia izaten al da gure bozka emateko orduan? Hala, jendeak dagoneko erabakia izaten du noren alde egin? Egia dena da diru kopuru handia eskaintzen diotela alderdiek kanpainari, eta horretarako arrazoiaren bat izango dute, noski.

Kanpaina gaur hasi bada ere, honek soka luzea dakar atzetik; izan ere, une batzuk lehenago jakin ahal izan zen hilaren 27an zein alderdi bozkatu dezaketen herritarrek.



2005 hauteskundetan bezala, kartelez beteko dira kaleak oraingo kanpainan ere. HITZA



Hamabost egun iraungo dituen kanpainaren ostean, bozka emateko unea iritsiko da. HITZA

LIZARTZA ▶

PPk alkatetza eskuratzea ekiditeko boto zuria emateko eskatu du Egibarrek

Ezker abertzalearekin batera hau baita aurkeztu den alderdi bakarra

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.
Zerbitzaria. Tolosaldean taberna baterako zerbitzari bat behar da, lau orduz lan egiteko. Interesatuak deitu 635 74 52 91 edo 943 69 43 13 zenbakietara.
Langilea. Pertsona bat behar duzu ekitaldi muntaietarako. Dekoratuak, eskenatokia, aukiak jarri eta abar. Interesatuak 943 69 18 41 telefono zenbakira deitu lehenbailehen.
Teknikaria. Abeltzantza sektorearen ezagutza duen teknikaria behar da, Gipuzkoan lan

egiteko. Egun osorako lana izango litzateke eta autoa edukitzea beharrezkoa da. Euskalduna izatea ezinbesteko baldintza. Harremanetarako: curriculumak bidali, 350 posta kubxatila, Azpeitia helbidera.

Sukaldaria. Emakume sukaldari bat behar da Tolosaldeko jateke baterako. Interesatuak deitu 606 61 52 93 telefono zenbakira.

SALGAI

Altzariak. Bigarren eskuko altzariak salgai. Oso egoera onean. Interesatuak deitu 655 74 72 00 telefono zenbakira.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Hauteskundeetako zerrendak. Gaur abiarazi dute hauteskunde kanpaina. Hala, eskualdeko egunkariaren webgunean, www.tolosaldeko-hitza.info-n ikusgai daude Tolosaldean eta Leitzaldean udal hauteskundeetarako aurkeztu diren alderdi guztien zerrendak. 30 herrietako hautagaien izenak ikusteko aukera duzu, beraz, gure webgunean sartuz gero. ▶

ERREDAKZIOA

Joseba Egibar Lizartzako alkatetza hilaren 27ko udal hauteskundeetan boto zuria emateko eskatuko die herritarrei. Honekin Alderdi Popularrak Lizartzako alkatetza eskuratzea ekidituko du. EAJko Gipuzkoa Buru Batzarreko buruzagiak. Izan ere, ezker abertzalearen zerrendak ilegalizatu gero, hauteskundeetara aurkeztu den beste alderdi bakarra PP litzateke. Ilegalizazioa aurrera eramanez gero, Alderdi Popularrak alkatetza eskuratzeke nahikoa luke balizko botoen %5a eskuratzea.

Joseba Egibarrek prentsaurreko batean agertu zuen Lizartzako egoera. Lehen aipatutako bi alderdiek bakarrik aurkeztu baitute hautagaitza hauteskunde hauetarako. Honekin batera, 2003ko bozketan gertatutakoa ere azaldu zuen. Orduan, bera EAJko zerrendaburu gisa aurkeztu zen Lizartzan. Garai haietan, ezker aber-

tzaleak botoen gehiengo eskuratu bazuen ere, ilegalizatu izan zenez Egibarrek eskuratu zuen alkatetza. Bere esanetan, orduan ere «Alderdi Popularrari bidea itxeko aurkeztu zuten hautagaitza». Bestalde argitu zuen, berak ez duela utzikeriaz jokatu lau urte hauetan eta legealdi honetan gauzatu-tako hainbat proiektu zerrendatu zituen.

Alkatetza azaldu zuen bezala, Lizartzakoak ez zirenekin osatu zuten zerrenda duela lau urte. Baina hau ez dute ohitura bihurtu nahi, hau ez baita «arrunta». Bere ustez «legezko alkatetza bai baina zilegia ez da izan», lizartzatarren botoen gehiengo ez baitzuen eskuratu. Agerraldian azaldu zuen ere, EAJk ezker abertzaleari ematen diola orain, Alderdi Popularrak alkatetza eskuratzea ekiditearen eginbeharra. Alkatetaren esanetan, «beraien esku baitago balio gabeko boto edo boto zuria eskatzearen erabakia».



ANOETA ▶

Aitor Diaz da Ezker Batua eta Aralarren zerrendaburua

Babes ofizialeko etxebizitzak eta alokairu soziala bultzatzen dute

ERREDAKZIOA

Aitor Diaz, Jon Camba eta Purificacion Oronbengoek hasen dute hilaren 27ko hauteskundeetarako Ezker Batua-Berdeak eta Aralar alderdien zerrenda.

Hautagaiek azpimarratu dute Anoetako herritarren bizi aldintzak hobetzeko lan egingo dutela. Horretarako etxebizitza duina izatearen eskubidea defendatuko dute, babes ofizialeko etxeak eta alokairu defendatuz. Koalizioa osatzearen helburuetako bat bezala agertzen dute ezkerrean lekua ordezkatzua egotea.

VILLABONA ▶

Marijo Sanchez, EB eta Aralarren alkategai

Ingurugiroa, azpiegiturak, etxebizitza eta euskara dira programako ardatz nagusiak



Severiano Iglesias, Marijo Sanchez eta Antton Karrera. HITZA

ERREDAKZIOA

Marijo Sanchez, Severiano Iglesias, Maria del Coro Beloqui eta Maria Nevadok osatzen dute Ezker Batua-Aralar koalizioaren zerrenda Villabonako Udalerako.

Villabona «berri bat, ezke-

rretik» sortu nahi dutela azaldu dute. Ingurugiroa, azpiegiturak eta etxebizitza dira euren programaren ardatzetako batzuk, eta baita, erakundeekiko lotura, gizarte mugimenduk eta euskararen normalkuntza bultzatzea. «Hau dena, giza eskubideen defentsaren baitan».

ZIZURKIL ▶

Josema Amigo izango da EB-Aralarren ordezkaria

Normalizazio politikoa eta bakea bultzatuko dute Ezker Batua eta Aralarrekoek

ESTI EZEIZA

Ezker Batua Berdeak eta Aralar alderdiek osatutako koalizioak Josema Amigo aurkeztu du zerrendaburu gisa. Honi jarraitzen diote zerrendan Asun Etxeberriak eta Jose Manuel Izagirrek. Alderdi hauek bateratzearekin, ezkerreko ordezkaria egotea lortu nahi dute Zizurkil. Aldi berean, bakearen eta normalizazio politikoa alde egingo dutela adierazi dute, gizaratearen laguntzaz.

Euskal Gobernuarekin batera etxebizitza duinaren alde lan egingo dutela nabarmendu dute ezkerrekoek.

BI HITZETAN ▶

ANA SANZ
(EREITE ELKARTEKO KIDEA)

«Tolosa turistiko bat egin nahi dute»

I. Terradillos ▶ Ana Sanz Ereite elkarte kultur anitzeko kidea da.

Zer nolako balorazioa egingo duzu Tolosako Udalarren azken lau urteotako agintealdiaz?

Tolosaren arpegia txukuntzea izan dutela lehendabiziko ardura uste dut. Tolosa turistiko bat egin nahi dute.

Oro har, zer eskatuko zenioke hurrengo Udalarri?

Une honetan, Udalean immigrazio teknikaria egotea eskatzen dugu, beharrezkoa baita. Horretaz gain, etxebizitza arloan inbertitzea ere eskatuko nuke.

Zure esparrutik, zer nabarmendu nahiko zenioke Udalarri?

Elkarte bezala gustura gaudu Udalak gurekin izan duen tratua, dena den, gizaratearen alorrean nahiko gutxi inbertitzen duela ikusten dugu. Argi eduki behar luke Udalak etorkinak hementi dauden unetik tolosarrak direla.

EKITALDIAK ▶

ANOETA

Bihar. Egun osoan. Ezker Abertzalearen Eguna: 10:00etatik aurrera, herriko baserri eta artisauen VII. Azoka plazan; 10:30ean herriko pilotarien arteko pilota partidak pilotalekuan. Urkola-Jauregi / Tolosa-Irazusta eta Landa II.a / Errazkin II.a; 13:00etan, ekitaldia plazan; 14:00etan, txekor jatea pilotalekuan (txartelak erosteko gaur izango da azken eguna); 17:00etan, bertso poteoa Hamaika bertuteko kideekin. Beñat eta Unai Gaztelumendi izango dira bertsolariak; 19:00etan Erromeria plazan herriko trikitilariekin.

TOLOSA

Bihar. 11:00. EB-Aralar koalizioak Triangulo plazan Gipuzkoako ekitaldi nagusia egingo du. Bertan hautagaiek egongo dira programaren berri herritarrei ematen. Oria barrutiko burua den Patxi Aierbe ere egongo da bertan. Ekitaldia alaitzeko musika ere jarriko dute. ▶

GAURKO IRUDIA ▶



Abertzale Sozialisten Batasuna ilegalizatu izana salatu dute

Erredakzioa ▶ Ezker abertzaleak deituta elkarretaratzeak egin zituzten bi eskualdeetako hainbat herritan herenegun. Mobilizazioak, *Prozesu eta hauteskunde demokratikoen alde. Ilegalizaziorik Ez!* lemapean burutu ziren. Abertzale Sozialisten Batasunak aurkezturiko zerrenda guztiak ilegalizazio bidean jarri izana salatu nahi izan zuten herenegun bildutako lagunek. Honez gain, akor-

dioari eta lau herrialdeetarako autonomia proposamenari ezetza ematen diotela azaldu zuten herri bakoitzeko elkarretaratzeetan. Bestalde, eskualdeko ezker abertzaleak jakinarazten du, bihar bat egingo duela EAE-k deituriko manifestazio nazionalarekin. Gainera, Tolosa, Lizartza, Aduna, Zizurkil eta Villabonako autobusak antolatuta dituzte Bilbora joan ahal izateko. I.GARCIA / HITZA

IRURA ▶ KULTURA

Mus Txapelketa eta Ikastolaren Eguna, Kultur Asteari ekiteko

Mus Txapelketaren azken kanporaketa eta final-laurdenak jokatu dituzte gaur eta Ikastolaren Eguna egingo dute bihar

IMANOL GARCIA

Ekitaldi ugari antolatu dituzte Irurako Kultur Asterako. Gaurkoan taberna eta elkarteen arteko Mus Txapelketaren 5. kanporaketa eta final-laurdenak jokatu dituzte Zaharren Biltokian, 22:30etik aurrera. Biharko, Kultur Asteko ekitaldi nagusietako bat egingo dute: Ikastolaren Eguna.

Bigarren aldia da egiten dutela festa hau. Aurrekoetan Anoetako Ikastolarekin batera egiten zuten, baina iaz beraien eguna ospatzea erabaki zuten, ikastola hazkunde handia izan duelako. «Iaz oso gustura gelditu ginen», dio Josune Aiestaran Ikastolako zuzendariak. Ekitaldiak 11:00etan hasiko dira. Ikastolako kideek kalejira

egingo dute herrian zehar. Ondoren, 12:30ean, haur eta helduen arteko jolasak egingo dituzte. «Gurasoen parte-hartzea joko hauetan azpimarratzekoa da», dio Aiestaranek.

Bazkaria 14:00etan izango da, plaza. «Iaz 200 lagun elkar-tu ginen eta aurten ere espero dugu hainbeste elkartzea», azaltzen du zuzendariak. Bazkaria Anoetako Ikastolako DBH3ko ikasleek zerbitzatuko dute, beraien bidaiarako dirua lortzeko.

Bazkal ondoren Ikastolako ikasle obiek antezelana egingo dute. bestalde, abestientzako tarte ere izango da. 18:00etan Poxpolo, Mokolo ta Konpainia pailazo taldearen emanaldia plazan. Eguna bukatzeko, 22:30ean herriko taldeen kon-

tzertua Trinketean. Egunean zehar mariskada bat zozketatuko dute.

Kilometroak prestatzen

Bihar bere eguna ospatuko badute ere, Ikastolakoek dagoeneko datorren urteko Kilometroetan dute burua. «Hemen-dik bi astetara hasiko dira eraikin berria egiteko lurrak mugitzen», zehaztu du Aiestaranek. Kilometroak diru iturri garrantzitsua izango dira eraikin berria ordaindu ahal izateko. 2008ko iraileko eraikina bukatuta nahi dute izan, ikasurtea bertan hasteko.

Festa erraldoiari begira dagoeneko azpibatzerdeko ordezkariak izendatuta daude. Guztira 13 dira. Zirkuitu eta salmentazko azpibatzerdeak dira bi adibide. Irurako Ikastolak, zein Anoetako Ikastolak eta Tolosako Laskorain Ikastolak hartzen dute parte azpibatzerdeetan. «Kilometroak Iruran izango badira ere, bailara guztiaren inplikazio behar dugu», zehazten du Aiestaran zuzendariak. «Gure ikasleak DBH Anoetako Ikastolan egiten dute eta gero Batxilergoa Laskorainen». Bi denda jarriko dituzte, aurtengo Kilometroak pasatu ondoren martxan jarriko direnak. Bata Tolosan eta bestea Iruran bertan.

Bestalde, ekainaren 29tik uztailearen 1a bitartean Garagardo Azoka antolatuko du Ikastolak. Ekitaldi honetan ere herri-tar ugari parte hartzen dute. «Guztien laguntza beharrezkoa da», dio Aiestaranek.

VILLABONA ▶

Amasa-Villabona herriarteko lehia

Amasa-Villabonak XL. Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketan parte hartuko du. 12 urte pasa dira azken aldiz herriak parte hartu zuenetik eta aurtengoan nola edo hala taldea osatzea lortu dute. Lehen partida gaur jokatu dute Oartzunen aurka Amasako pilotalekuan 21:45ean. Bertan hiru partida ikusi ahaliko dituzte. Kadetetan, Axier Arrue eta Beñat Karrera; jubenilak, Arkaitz Arretxe eta Eneko Pinar; eta seniorretan, Egoitz Bengoetxea eta Iñaki Lizaso.

VILLABONA ▶

EHNA egiteko aukera berri bat bihar

Herritarrek EHNA egiteko aukera berri bat izango dute bihar Villabonan. Kultur Etxean egin ahaliko dute, 11:00etatik 13:00etara. Ohi bezala, hiru argazki, errolda agiria eta 15 euro ordaindu behar dira. Dagoeneko Villabonako 400 lagunek egin dute Bai Euskal Herriarik bultzatzen duen EHNA agiria.

ZIZURKIL ▶

BOEentzat eskariak, ekainaren 2ra arte

Zizurkilgo Udalak bando berri bat atera du 33 areako (Lizaraingo zerrategia zegoen eremua) babes ofizialeko etxebizitzaren inguruan. Bandoaren arabera, babes ofizialeko etxebizitzetako eskabideak aurkezteko epea luzatu egin dute. Horrela, eskatzaileek ekainaren 2ra arte izango dute aukera beraien eskaerak egiteko. Udalak informazio puntuak zehaztu ditu horretarako. Astelehene-tan 10:00etatik 13:00ak arte udaletxean (Zizurkil Goian). Aste-arteetan 17:00etatik 20:00etara Atxulondo kultur etxean eta larunbatetan 09:00etatik 13:00ak arte Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean. Informaziorako telefono zenbakia ere jarri du Udalak eta 627 98 56 32 da.

ANOETA ▶

Txorlitohead zuzenean Saloon Radikal Biker-en

Txorlitohead punk rock talde donostiarrak Anoetako Saloon Radikal Biker-en emango du kontzertua gaur, 24:00etan. Ardilatxa Tour Xpresion!!! zirkuitoaren baitan. Sarrera dohainik da.

ANOETA ▶

Festetako play-back saiorako izen-ematea

Herriko festetako play-back saiorako izen-ematea zabalik dago Villabonan. Saioa ekainaren 8an izango da. Bi talde osatuko dira: DBH3 artekoa (hori barne) eta DBH4tik aurrerakoa. Taldekideen erdia baino gehiago herrikoak izan behar dira. Izena emateko epea hilaren 31 arte da eta Jon Ander Odriozolaren denda edo kiroldegian egin daiteke.

OHARRA ▶

Felipe Gorriti musikagileari omenaldia egingo diote bihar Tafallako (Nafarroa) Santa Maria kaperan, 19:30ean. Gorriti Tolosako Santa Maria parrokiko organo-jolea izan zen ia 30 urtez. Tafallako eta Tolosako Santa Maria abesbatzek eskainiko dute kontzertu omenaldia.

Lanku		Bertsu emanaldien agenda
M a i a t z a	11	DONOSTIA (Añorga) Arbizon Aiestaran K.G. - 22:30ean GU TA GUTARAK Arbizon Aiestaran K.G. - 22:30ean
		ERRENTERIA Xenpelak K. Etxea - 19:30ean Hitzakia: Emakumea eta bertsolaritza Maialen Lujanbio
		DONOSTIA (Amara) Ikasbide K. Elkarte - 20:30ean Bertsu afaria: Xabier Silveira eta Fredi Pasa
	12	PASAI DONIBANE Santiago plaza - 18:00etan 1, 2, 3... INAXITO! Umeentzako bertsu antzerkia
	13	ZESTOA (Iraeta auzoa) Gure ordeka Elkarte - 14:00etan Bertsu bazkaria: A. Egoña eta U. Iñurriaga

hitza

Harpidedunen
txokoa

Lizardik antolaturiko emanaldiak direla-eta
HITZAko harpidedun guztien artean
datorren **igandean** maiatzak 13, eguerdiko 14:30ean
Tolosako zerkausian egingo den **bazkari herrikoierako**
2 harpidedunentzako **bina sarrera zozketatuko ditugu!**

Zorte on
eta
adi egon!



kantuan
dantzan
martxan

ESKOLA TXIKIEN TOPAKETA ▶



Aurten ere herri kirolak egingo dituzte Berazubín, 13 herrietakoak haien artean nahastuta. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Gaur Eskola Txikien V. Kirol Topaketa izango da. Honetan, eskualdeko hainbat ikastetxek hartuko dute parte: Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Aduna, Al-tzo, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Ikaztegieta, Lizartza eta Zizurkil. Tolosako Berazubi ze-laian bilduko dira Tolosaldeko eskola hauek guztiak, goizean zehar, 10:00etatik 12:00etara bitarte. Itsasondokoak eta Gabiriakoak ere hurbilduko dira bertara.

Kirol Topaketak bi helburu ditu nagusiki: kirol praktika sustatzea eta ikasleen arteko harremanak sendotzea. «Eskola txikietakoak gutxiago gara, eta sozializatzea da gure helburua», adierazi du Arantxa Olidenek, aurtengo eskola txikietako koordinatzaile lasartearrak.

Lehengo urtean 180 haur bildu ziren, eta aurten 208 izango dira. Hauek guztiak bigarren ziklokoak eta hirugarren ziklokoak dira. «Haurrak bi taldetan banatuko ditugu: alde batetik, 3. eta 4. mailakoak ibiliko dira, eta bestetik, zaharrenak, 5. eta 6. mailakoak, alegia», argitu du Olidenek.

Berazubín egingo dituztenak honakoak izango dira: txingak,

Eskola txikien IV. Kirol Topaketa gaur

Berazubín elkartuko dira hainbat haur kirola egin eta harremanak sendotzeko

zaku karrera, lokotxak, jaurtiketa, saltoak, hesi proba, las-terketak, pilota pilotalekuan, sokatira, eta baita ohorezko buelta ere. Bi orduetan zehar kirola eta harremanak uztartuko dituzte.

Harremana urtean zehar

Eskola txikiek jaialdi bat egiten dute urtero, baina Gipuzkoa mailakoa. Urtero herri ezberdinetan egiten dute, eta aurten Zubietan izango da ekainaren 10ean. «Aurtengoa 19. urtea izango da: beraz, baditu urte batzuk», gogoratzen du Olidenek.

Eskola txikien ezaugarri nagusia adin desberdineko ikas-

leak gela bakar batean egotea da, nahasirik, hain zuzen. Beraz, gaur goizeko eskola guztietan nahasirik ibiltzen dira klaseetan, eta ez adinka antolatuta. Urtean zehar ere harremana gordetzen dute. Honen adibide argia Abaltzegietakoa da, edota Lizartza, Albiztur eta Berrobiren artean egin berri dutena: bi taldetxo hauek bloga dute, eta harremanak sendotzeko guneak dira. Hauek dira helbideak: www.abaltzegieta.blogspot.com, eta www.kontu-kontari.blogspot.com, hain zuzen ere.

Eskola Txikien Topaketarekin bukatu ondoren, haurrak autobusa hartuta herrietara itzuliko dira.

PILOTA ▶

Benjaminen neurketak Baliarrainen izango dira

Gaur Berastegin jubenilek jokatuko dute, Aurrera-Saiazkoek eta Erniopekoek

N. URBIZU

Benjaminen arteko HITZA Pilota Txapelketako partidak bihar izango dira, baina Baliarrainen eta ez Alegian, Gara-gardo Azoka dela eta. Neurketak 18:00etan izango dira.

Erniopeko, Zazpi-Ilturriko eta Villabonako pilota eskola-ko benjaminak, alebinak eta infantilak ariko dira kanpotarren kontra. Baliarraingoa hiru eskoletakoak, 2. partidatik aurrera; Albizturren gaur 19:00etatik aurrera, eta 3. partidatik aurrera, eta infantilak

Adunan gaur, 19:00etan, bigarren partidatik aurrera.

Berastegin gaur 19:00etan Aurrera-Saiaz ariko da, hiru partidetan. Erniope izango da arierio bigarren partidatan.

Bestalde, Beotibarren jokatuturiko partidetan senior mailakoan artean Baez II-Galarra bikoteak irabazi zuen 22-10 Ollo-Jauregiren aurka. 22 urte azpikoan artean Atxotegi-Lin-zoain izan ziren garaile Pika-bea-Galarragaren kontra.

Gipuzkoako herrien arteko txapelketa bihar jokatuko dute 20:30ean Bidanian.

BEDAIO ▶

Bedaio badu webgunea martxan

Bedaion webgune berria egin dute: www.bedaio.com, hain zuzen. Bedaion bertan diseinaturikoa da eta Bedaioz gehiago jakiteko aproposa da. Bertan agenda bat dago, eta auzoari buruzko informazio interesgarria gordetzen du, besteen artean. Dagoeneko martxan da.

ALEGIA ▶

Pako Larrañagari buruz, etzi, 'Dutifri' saioan

Etzi, telebistan Pako Larrañaga presoari buruz hitz egingo dute, Xavier Sardak zuzentzen duen saioan, Espainiako Tele 5 kanalean, *Dutifri* saioan, eta gauez izango da. <http://www.vayatele.com/2007/04/30-dutifri-los-viajes-de-sarda> webgunean bere bideo bat dago ikusgai.

Goierri Lanbide Eskola

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK

ATE IREKIEN JARDUNALDIA

**Bihar Osteguna
Martxoak 12 - Larunbata
9 - 12:30**

hitza

Harpidedunen txokoa

Alegiko garagardo festan, datorren larunbatean maiatzak 11, egingo den afarirako 2 harpidedunentzako bina afari zozketatuko ditugu gure harpidedunen artean!

Zorte on eta adi egon!

Garagardo desberdinek, xodilloa, salnitak, ...

Maiatzak 11 eta 12

Alegiako Elorri pilotalekuan

HERRI KIROLAK ▶

Harria eta ezpala protagonista Leitzan

A. IMAZ

Anjel Arrospeidek galdu egin zuen herenegun Larretxearen aurkako lehia Morgan (Bizkaia). Parekotasun handia egon zen bi aizkolariaren artean, baina Larretxeak lortu zuen azkenik, 20 segundogatik, Urrezko Aizkolari Txapelketako finalerdietarako txartela.

Leitzan bestalde, etzi, harri jasotzaileak eta aizkolariak ariko dira lehian Amazabal frontoian. 12:00etan 23 urte azpiko finalerdiak jokatu dira, Ugaitz Mugerza eta Xabier Mindegiaren artean. Elite mailan, Jon Rekondo leitzarrak Xabier Orbegozo, Arria V.a izango du aurrean. Ondoren Ostolaza eta Zelailuze harri jasotzaileak, Jose-txo Urrutia leitzarra eta Telleriaren aurka lehiatuko dira.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Bestarik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolagiri:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

ALTZO ▶ HISTORIA

'Altzo 'ko Aundiya'

Altzoko Erraldoiari Gaztelun bizi den Tomas Ugartemendiak eginiko harrizko eskultura jarri dute Altzoko frontoiaren atzekaldean

ASIER IMAZ

Miguel Joakin Eleizegi, *Altzo 'ko Aundiya*ren harrizko eskultura jarri dute bere herriko frontoiaren atzekaldean. Gaztelun bizi den Tomas Ugartemendiaren eskuek zizelkatu dute Migel Joakinen irudia. Altzo bertatik aterako harriaren gainean.

1818ko uztailaren 10ean sortu zen, 2 metro eta 42 zentimetro neurtzera iritxi zen Altzo azpiko Ipintza baserriko giza-semea. Joakin, bederatzia anai-arrebatatik laugarrena zen. Haurtzaroan ez omen zuen inongo berezitasunik, sendiko kideen modura. Helduaroan hasi ziren bere neurriak nabarmentzen, epe laburrean gainera.

Tolosara joaten zenean, benetako ikusmira sortzen omen zuen. Egurrez beteriko idi gurdia batekin joaten zen eta ikusten zuten guztien ahotan egoten omen zen haren handitasunari buruzko aipamenei bat edo beste.

Lekunberriko Jose Antonio Arzadun bere bizitzan gurutzatu zen orduan. Gizaseme honek elkarte bat sortu zuen erraldoia herriz herri eraman eta dirua egiteko. 1843. urtean, elkarteak kontratu bat izenpetu zuen Migel Joakinen beraren adostasunarekin.

'Erraldoi Euskalduna'

Europatik barrena ibili zenean, bere burua *Erraldoi Euskalduna* izenarekin aurkezten zuela diote idatziek. Lehenengo irteera Bilbora egin zuen, alokatu-riko gurdia batean. Hasierako urteetan, gurdia tamaina zela eta, erraldoia makurtuta joatera behartuta egoten zen. Hau kaltegarria bihurtu zen bere osasunerako, aurrerago beraz, bere jabetzakoa zen gurdian bidaiatzen hasi zen. Hogeitabost urterekin Donostian egon zela diote datuek, ondoren, Paris, Espainia, Portugal eta berriz ere Frantzia bisitatu zituen. Emandako ikuskizunetan, zenbait trikimailu erabiltzen zituzten jendea erakartzeko, adibidez turkoz edo espainiar armadako jeneralez mozorrotzen zen.

Garaiko erregeek ere ez zuten euskal erraldoia ezagutzeko aukerarik galdu. Idatziek azaltzen dutenez, Frantziar Luis Felipe erregea ezagutu



Altzon jarri duten Tomas Ugartemendiaren harrizko eskultura. A. IMAZ



42 zentimetrotako oinak. HITZA

zuen. Portugalen berriz, Maria de la Gloria erregina eta Ingalaterran Victoria I.a Emakume ingeles erraldoi batekin ere ezkondu nahi izan omen zuten, ekonomikoki onura ekar zekiokeelako, baina Joakini ez zion ilusiorik egiten, nonbait. Hark benetan nahi zuena, etxera itzultzea omen zen, Ipintza baserriera.

Bidaletatik itzultzen zen baikoitzean, altuera eta zabalera zizelkatzen zituzten Altzo Azpiko San Salbador elizaren atarian. Azken neurketan, 2 metro eta 42 zentimetro agertzen dira horman, altueraz zein zabaleraz. Zorionez erraldoia fisikoki proportzionatua zen, baina biriketako tuberkulosia diagnostikatu ondoren idatzitako bi testamentuetan, bata Isabel II erreginari zuzendutako instantzia, bere burua «naturaren abortutza» jo zuen. Dirudieenez, bere handitasunak lotsarazi egiten zuen. Ez zen oharkabean pasatzen eta horrek gaizki sentiarazten zuen erraldoia.

Heriotza, Ipintza baserrian

Berrogeita hiru urterekin hil zen bere jaiotetxean, 1861eko azaroaren 20ean. Bere testamentuan eskatu bezala, lurperatu egin zuten, horretarako hilkutxa erraldoi bat ekarri behar zuten Tolosatik. Haren gorpua Altzo Azpiko hilerria eraman zuten, ondareak berriz San Telmo Museora.

Bere hezurrek zeresan ugari sortu dute. Hasera batean etnologo batzuk erosi nahi izan omen zituzten, baina familiak ezezkako eraman zien. Orduetik herriarrazten artean, erraldoiaren hezurak norbaitek lapurtu zituela zabaldu zen.

Kontratuko puntu batzuk

Jose Antonio Arzadun elkartearekin eginiko kontratuko hainbat puntu hauek dira: sari guztiak Migel Joakin jauna-arentzat izango dira; Migel Joakin jauna gaixotuko balitz, Elkartearen esku egongo lirarteke gastuak lehenengo hilabetean; dagoen lekuan egonda ere, Elkarteak mezara

joateko aukera eman beharko dio jaiegun guztietan Joakin jauna; Erretzeko beharko duen tabako guztia Elkartearen gain egongo da; bete beharreko baldintza da Elkarteak Migel Joakin ez itsasoraketea; baina egoki iruditutako edozein lurraldetara eraman dezake. ◀

IÑAKI SAGREDO ▶ HISTORIALARIA

«Gazteluek herri bakoitzaren independentzia irudikatzen zuten»

Iñaki Sagredok Leitzan izandako bi dorreen inguruko hitzaldia emango du gaur gazteleraz, 19:30ean

NAIARA GARZIA

Iñaki Sagredok (Iruñea, 1967) 2006. urtean *Nafarroa, erresuma defendatu zuten gazteluak* izeneko liburuaren lehenengo liburukia argitaratu zuen, eta bigarrena maiatzaren bukarean argitaratu du. Gaur, 19:30ean, hitzaldia emango du liburutegian, gazteleraz, eta liburuko hainbat gai jorratzeaz gain, Leitzan izan ziren bi dorreen inguruan mintzatuko da. **Gaurko hitzaldian zer gai jorratuko dituzu?**

Alde batetik, Nafarroako Erresumaren defentsari buruz mintzatuko naiz, baskoien garaie-tatik aurrera eta bestalde Erdi Aroraino eman ziren defentsa forma ezberdinak azalduko ditut, Leitzako dorrea azaltzen den garaieraino. Leitzako bi dorreak nolakoak ziren ere deskribatuko dut, bi dorre baitzeuden, bat egurrezkoa eta bestea harrizkoa. Honetaz gain, dorrearen inguruko dokumentazioa errepasatuko dut, ez baitauek aurrekaririk. Jendea ere animatu nahiko nuke denon artean dorrea zehatz-zehatz non egon zen jakin ahal izateko.

Hitzaldian ere jendeak parte hartu ahal izango du, beraz.

Bai. Oraindik Leitzako dorreari buruz beste zerbait ere jakin dezakegu eta horretarako jendearen parte-hartzea ezinbes-

tekoa da. Gainera, Leitzako dorrea Torre de Leiza den etxean bazegoen zimenduak aztertze-ko aditu bat bidaltzea ongi legoke.

Leitzako dorrea orain Torre de Leiza den erakina dagoen lekuan legoke, ezta?

Ziurrenik bai, baina horretarako jende helduak duen iritzia ere garrantzitsua da. Toponimoari kasu eginez gero, behar bada hor egon zela pentsatu nuen, baina baliteke gu bilatzen ari garen dorrea hori ez izatea.

Gorritiko gazteluaren hondarrik ba al dago?

Larraulgo Udaltzatzen eta Gorritiko herriak indusketa arkeologikoa batzuk egin eta gero hondar batzuk atera dituzte, baina oraindik lan asko dago egiteko.

Liburua egiteko ideia nola bururatu zitzaizun?

Zaletasun bat bezala hasi zen. Garai batean Nafarroan gazteluak egondako lekuak bisitatzeko hasi nintzen eta pixkanaka agiritegiaren informazioa biltzen hasi nintzen. Gero argitaratzeko ideia sortu zen. 8 urtetako ikerlan bat izan da.

Nolakoak ziren gazteluak?

Leitzan adibidez lehenengo egurrezkoa zen, baina urteekin harrizkoak egiten hasi ziren, egurrezkoak sua errez hartzen baitzuten. Gazteluak, berriz, harrizkoak ziren, nahiz eta



JAGOA MANTEROLA/ARGAZKI PRESS

egurrezko elementu asko ere erabiltzen zituzten. Gorritiko gazteluan, esaterako, kanpoko dorreak egurrezkoak ziren, eta dorre garrantzitsuenak, berriz, harrizkoak. Gazteluak oso txikiak ziren. Dorre handi bat zeukaten, eta urez betetzen zuten zisterna bat. Honetaz gain, inguruan soldaduentzako etxe txiki batzuk izaten zituzten.

Gaztelu hauetan, beraz, ez ziren agintariak bizi?

Ez, gerrarako gazteluak ziren. Bertan alkaidea bizi zen, hau gazteluko pertsona garrantzitsuenak izan ohi zen. Eta gero soldaduek zeuden. Beste gaztelu batzuetan erregeak bizi ziren, Tuteran, esaterako, edo Lizarran, baina liburuan agertzen diren ez.

Zein zen gazteluen papera Nafarroan?

Nafarroan 100 gaztelu zeuden, eta helburu ezberdinak zituzten. Leitzako dorreak, esaterako, Leitzako defendatzea zuen helburu, baina beste leku batzuetan, hegoaldean batik batik, gazteluak haien artean komu-

nikatzen ziren, haien artean kilometroak egon arren. Gazteluetan 10 bat pertsona edo egoten ziren, eta orokorrean defentsa modu bat ziren: Nafarroan sartzen zen edozein armadak gaztelu bakoitza mendatu beharra zeukan.

Gaztelu hauek zer garrantzia izan dute Nafarroako historian?

Oso garrantzitsuak izan ziren, ez baitziren eraikin hutsalak. 1512. urtean Gaztelak Nafarroa konkistatu zuenean, eman zuten lehenengo agindua gazteluak botatzea izan zen. Agindu hau jaso zuenak Gaztelako erregeorde zenari, Cisnerosi, gazteluak bota ondoren gutun bat bidali zion eta zera jartzen zuen: «Nafarroako gazteluak bota egin ditugu eta nafarrek ez dute bururik altxako». Izan ere gazteluak ez ziren defentsarako bakarrik, harago zihorian esanahi bat zuten nafarrentzat: gazteluek herri bakoitzaren independentzia irudikatzen zuten.

Nafarroako Gobernu memo-

ria berreskuratzeko orduan konprometitzen al da?

Ez, ez zaie interesatzen. Liburu honek, adibidez, ez du inolako diru laguntzarik jaso.

Zergatik?

Liburuan ondareari buruz hitz egiten dut, baina aldi berean oinarri politiko garrantzitsu bat du. Nafarroako erresuma arma bitartez konkistatu zuten eta garaipen horren mementurik garrantzitsuenetakoa gazteluak bota zituztenekoa izan zen. Independentzia kutsua duen edozer gobernuak ez du gustuko, eta ez du horri buruz ezer jakin nahi.

Ze helburu du liburu honek?

Funtsean, Nafarroaren identitatea berreskuratzea. Azken batean orduan izan ginena orain nahi duguna da: independentzia. Liburu honek irudi bidezko historia kontatzen du, baina aldi berean garai hartako Nafarroaz hitz egiten du, orain jende askok faltan botatzen duen Nafarroa hartaz, gaur egun izan ginen horren sentimendua falta baitzaigu.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK
URTEURRENEN
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAN jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

hilberria ▶

Antonino Seguro Uzkudun

Asteazkenean hil zen, 85 urterekin.

Beti hor egon zara
betiko hementxe gelditzen zara

Maria Luisa, Olatx, Joxe Mari eta Iñaki

AZPEITIA, 2007ko maiatzaren 11

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko maiatzaren 11, ostirala ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez

beroen 19 hotzena 14

BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidetuen egileko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Gaur eta bihar, 19:00etatik aurrera IV. Garagardo Azoka antolatu dute Alegiko pilotalekuan. Bertan bederatzigaragarako ezberdin dastatu ahal izango dute bisitariak. Afaria ere izango da. Dirua Intxurre futbol eta areto futbol taldeentzat bideratuko dute.

Anoeta. Ezker abertzaleak bihar antolatu duen txerko jaterako txartelak salgai daude Itzuli, Arkupe, Haizea eta Goikoetxea tabernetan, Tolosako Rakun, Villabonako Iratzen, Ibarra Atarin eta Alegiako Ixkinan, 22 eurotan (langabetuek 15).

Berrobi. Kultur Astearen baitan, gitarara: 10:00etatik 12:00etara eskulan erakusketa udaletxean; 17:30ean eskolako ikasleen emanaldia ikastetxean; eta jarraian literatur lehiaketako sari banaketa egingo da.

Berrobi. Udal Kultur Batzordeak Errioxako Laguardiako Paganoseko Solar de Ayala upelategira irteera antolatu du. Izen-ematea, udaletxean bertan eman daiteke, 20 eurotan.


Tolosa. Rodrigo Leao eta Ludovico Einaudi musikarien emanaldia Leidor aretoan 21:00etan, *Mundua Tolosan* proiektuaren barruan.

Tolosa. Intza-Uharte Arakil mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 13rako, 8:00etan Gorosabeletik abiatuta. Ttuturre eta Txemine igoko dituzte. 7 orduko ibilaldia. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5, behea. 943 652789).

Tolosa. Txikiteoa kantuan antolatu du Lizardi elkarteak 20:00etan Alde Zaharreko tabernetan zehar. Kalejira izango da eta txistulariekin ibiliko dira parte-hartzaileak. Kantu liburuak banatuko dituzte.

Tolosa. CD eta binilo azoka berezia izango da Bonberenean, 18:00etatik 21:00etara (bihar, berri, egun osoz).

Tolosa. Laskorain Ikastolaren 40. urtemugan, ikasle ohiek afaria antolatu dute hilaren 19rako, larunbatarekin, Ferialekuan 21:00etan. Txartelak salgai daude



Ikatz, Iruña, Orbela eta Raku tabernetan.

Tolosa. Harizpe jubilatu eta pentsionista elkarteak Saloura oporraldia antolatu du maiatzaren 27tik ekainaren 19era. Pentsio osoa hiru izarreko hotelean 381 euro (ez bazkideek 387). Informazioa eta erreserbak, egoitza.

Tolosaldea. Etzi,

igandearrekin, Senperera, Herri Urrats euskarren festara joateko autobusak antolatu ditu Galtzaundi euskara taldeak. Izen-ematea, Galtzaundin (Nafarroa etorbidea 6, behea)

Zizukil. Berto eta musika afaria Eñaut Agirre eta Amaia Agirre eta Jexux M^a Irazu bertsolariarekin 19an

Done Jakue Bideari eskualdean

TOLOSA ▶ Tolosako Done Jakue Bideko Lagunen elkarteak antolatu duen Done Jakue Bidearen 2. Astearren baitan, herenegun Albada musika eta dantza taldearen ikuskizuna izan zen udaletxeko batzar aretoan. Done Jakue Bideko musika jo zuten, eta ondoren hitzaldia izan zen historian zehar tolosarrek Bidearekin izan duten harremanaz. Pablo Garciaeren eskutik. *Bidearen ondare kulturala Euskadin* gaia ere landu zuten Arantxa Arzamendirekin, Eusko Jauriaritzako Ondarearen zuzendariarekin, hain zuzen. Oscar Terolek egin zituen moderatzaile lanak.

Bihar, izango dira hurrengo ekitaldiak. 17:00etan Arramaleko elizan Mundo Nuevo —argazkian— talde donostiarraren antzezlan izango da ikusgai; 18:30ean zaldizko erromesari harrera egingo zaie eta 20:30ean erromesaren elizkizuna izango da Santa Maria parrokian.

Azkenik, etzi, 08:00etatik aurrera irteera antolatu dute —oinez edo bizikletaz— Done Jakue Bideko Lagunen elkartearekin batera. Tolosa eta Beasain arteko bidea burutuko dute. **HITZA**

lehiaketa antolatu du gazte eta helduentzat. Lanak Euskara Batzordean entregatu behar dira hilaren 14rako.

Villabona. Larramendi Bazkuna elkarteak Amasa-Villabonako Erretratu zaharrek liburua aurkeztuko du, 19:30ean Gurea aretoan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Hilabete osoan zehar Pakita Barreroren margolanak ikusgai izango dira Alegiko jubilatuen tabernan, asteartetik igandera bitarte.

Anoeta. Mankomunitateak antolatuta, zabalik da *Hondakinak amesgaiztorik ez!* erakusketa Kultur Etxeko areto nagusian. Bihar da azken eguna.

Tolosa. Julio Pardo pintore iruindarraren margolak ikusgai daude Aranburu Jauregian, hilaren 19ra arte.

Zizukil. Hitzak egin gaitu ezer erakusketa. Asteazken zehar 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta asteburuan, berri, 12:00etatik 13:30era.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Irurtzun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4, 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Asteko onena.*
21:00-22:00. *Igo bolumena.*

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Xuban Munita Saralegi
 (Tolosa). Gaur 9 urte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
 Iosune Sarasola (Ibarra-Amezketza). 27 urte. Ondo pasa Aimar, Iraitza eta etxearen partetik.



URTE ASKOAN
 Eneko Lopez Etxenagusia
 (Tolosa). Gaur 6 urte. Aitona, osaba eta familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...